

BALOREZKO PROMOSAMENAK

Argi dago, haur baten segurtasuna dela guraso batentzat gauzarik garrantzitsuenetako bat. Askotan, segurtasun hori lortzea ez da hain erraza izaten umea txikia denean, izan ere, alde batetik bestera asko mugitzen dira, nondik dabilizan jakin gabe, eta horrek norbait haien gaiean egotea dakar momentu oro. Horregatik, haurrak zaintzen eta segurtasun hori lortzen lagunduko digun gailu bat merkatuan egotea beharrezkoa dela ikusi dugu.

ZER DA? ZERTAN DATZA?

Pultsera bat da, barnealdean txip berezi bat ezarrita duena. Horren eginkizuna, haurra hogei metro urrundu orduko zaintzaileari abisua bidaltzea da. Horrela, zaintzaileak haurra begi bistatik galduko balu momentu jakinen batean, pultsera honi esker, eta hark bidalitako abisuari esker, haurra, ezarritako distantzia baino gehiago urrundu dela jakinaraziko dio.

ZER ONURA DITU?

Haurra zaintzen dagoen pertsonak ez du horrenbesteko kezkarik eduki behar, baina honek ez du esan nahi begirada kendu dezakeenik. Izan ere, pultsera honek pertsona abisatuko du haurra 20 metro baino gehiago urrundu dela, baina ez du horren kokapena bidaliko.